



Idoia ZABALETA | FOKU



IKUSMIRA

MENDIARI ATERIK EZ; HESIA, ORDEA...

Gaztelaniazko esaera batek dioenez, ez dago landari ateak jartzerik. Espainiako Armada eta Defentsa Ministerioa ez dira atsotitzen zale, antza, eta ez dute aterik jarri, baina mendia hesitu nahi dute, zertarako eta Antsoaingo kuarteleko tiro eremuko segurtasun esparrua zabaltzeko. Kuartela egokitzeko lanetan hasi dira dagoeneko, txiki geratu baitzaie entrenamendu esparrua, nonbait. Eraikin bat ere egiten ari dira, hirietako gerra simulazioak egiteko, periodikoa leituz ilustratzen direnez, bai baitakite gutxien espero dugunean Afganistanen gerra piztuko dutela. Berriobeitiko Udaleko zenbait zinegotzi asaldatu egin dira, baina alkateak lasai ematen du, militarrek baimenik eskatu ez badute ere, bera lanak ikustera joan baitzen, eta badirudi ondo doazela, ez direla teilotatik hasi, alegia. Gainera, esan zioten Espainiaren defentsarako interesa duten lanak direla. Defentsa Ministerioak dioenez, militarrek nahi dutena egin dezakete Ezkaba mendian, oroimen historikoko gune izendatuta dagoen arren, zergatik eta diktadura garaiko hitzar-men batek hala xedatzen duelako. Ezkaban aspalditik nahi izan dutena egin dutelako.

Xabier Izaga